



TREBAKUNTZA 2011/11: HANDIEGIRIK, GEHIEGIRIK...

Gaztelaniazko *demasiado*=*mucho* moldea kalkatetik dator euskaraz GEHIEGI, HANDIEGI...oker erabiltzea. Akats horiek zuzentzen hasteko, hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * *Ez dut gogo **gehiegi** inori azalpenak ematen ibiltzeko.*
2. * *Ez naiz **trebeegia** musika kontuetan.*
3. * *Ez zuen kezka **handiegirik** horretaz.*
4. * *Bizitzera etxetik urrun joan behar izanak **ez zion** aldaketa **handiegirik** ekarri.*
5. * *Etxeko lanak egitea ez zait **gehiegi** gustatzen.*
6. * *Ez dut **gehiegi** ulertu.*
7. * *Ez daukat umore **onegia** festara joateko.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99



ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Ez dut gogo **handirik** inori azalpenak ematen ibiltzeko.
2. Ez naiz **oso trebea** musika kontuetan.
3. Ez zuen kezka **handirik** horretaz.
4. Bizitzera etxetik urrun joan behar izanak ez zion aldaketa **handirik** ekarri.
5. Etxeko lanak egitea ez zait **asko(rik)** gustatzen.
6. Ez dut **askorik/gauza handirik** ulertu.
7. Ez daukat **umore onik/umorerik** festara joateko.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Hurrena artel!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99